

# ZORIONA

(INDIA'KO IPUIÑA)

Antxiñatean gizonak, zeru gaiñeko jaungoikoak lez, "Zorion" betean bizi ziran. Eta zorionez eta bakean alkarrekin biziz, munduko jakintzan aurrerapen andiak egin ebezan: sua egiten ikasi eben, itsaso gaiñean ibiltzea asmatu eben, eta laster txorien antzera egaz egiten be aleginduko ziran...

Gizonen aurrerakuntza oneik ikusita, zeru gainean bizi diran jaungoikoak, ikaratu ziran, eta batzar bat egin ez, gizonai "Zoriona" lapurtzea erabagi eben.

Baiña... batzarreko jaungoiko batek esan eban:

Bai... Baiña... Gizonai "Zoriona" kendu ondoren, zer egingo dogu "Zorion" orregaz? Non gordeko dogu? Mendi gaillurean gordeten ba'dogu gizonak, buruz azkarrak dira, eta goraiño igoteko zerbait asmatuko dabe, eta ostera be "Zorionaren" jabe egingo dira. Eta itsaso sakonean ezkututzen ba'dogu, gizonak itsasoko urak ustuko dabez, eta galdutako "Zoriona" barriz lortuko dabe...

Zer egin?... Eztabaida askoren ondoren Brahma'gana aolku eske joatea erabagi eben. Brahma zarra zan, zeru gaiñean bizi ziran, jaungoiko guztien artean jakintsuena eta burutsuena... Eta onek zerbait argituko eban... Joan ziran, bada, Brahma'gana eta esan eutsoen:

Brahma Jauna, jaungoiko guztien aita, eta danak baiño argiagoa! Esaiguzu, non gorde bear dogu gizonai arrapatu deusagun "Zoriona", oneik ezin arrapatuko daben lekuan, guk ezkutatzeko?

Eta Brahmak erantzun: Emoidazue Zorion ori... Eta Brahmak "Zoriona" eskuetan artu, eta gizonaren bio-tzean gorde eban.

Ordutik ona gizonak, euren barruko zorion egarria ezin aserik, kanpora begira dabilta "Zorion" billa, eta ez dira jabetzen "Zoriona" gizon baktxaren barruan gordeta dagoala.

IÑAKI GOIKOETXEA



## ARGIA ETA ITZALA

Argia eta Itzala  
bizitzaren ardatzean.  
Goraberadun egala  
Bakoitzaren izatean.

Lau aro ditu urteak,  
Egungiro gazi-gezak:  
Atsegiñak ta nekezak,  
Lokatzak eta urreak.

Neguan ekaitza, gogor,  
Ta, udaran, lurra idor;

Udabarria iorankor  
Ta, udazkena beerakor.

Eta, gu, emen lurrean  
(uste ta, amets artean)  
Maitetasun itzalpean  
edo, itundurapean.

Utsa utsaren ganean,  
Lotzen ez bada bizia  
Anaitasun aripean,  
Maitasunez igurtzia.

MUNIATEGI-tar SABIN